

Indar politikoko biktimen eta bizikidetzaren arloan proposatu dituzten neurri batzuk:

EAJ

Memoria historikoa. Egiaeren mapa egiteko, 1936-1978 aldiko giza eskubideen urraketen txosten oinarria osatzea.

Biktimak. «Errepresio bidegabea jasan duten Biktimak Aintzat Hartu eta Ordaintzeko Legea bultzatzea».

Bizikidetzaren Foroa. «Bizikidetzaren eta giza eskubideen gaineko foro bat sortzea».

EH Bildu

Memoria historikoa. Euskal Lege bat onartzea, «egiaren prozesua adabakien pilatze kaotiko bat» izan ez dadin.

Egiaren Batordea. Ekinbideak bateratzeko batzorde bat sortzea, «egia osoa ezarri eta urraketa ororen biktimak eza-gutu eta aitortzeko».

Genero ikuspegia. «Egia eta justiziaren aldeko borrokan genero ikuspegia sartzea».

PSE-EE

Memoria «inklusiboa». «Biktima guztiak» aitortu eta erreparatzea, «baina nahasi gabe, eta biktimizazioaren arrazoiaren paralelismoekin egin gabe».

Topaketak. «Ezberdinen arteko topaketak bultzatzea».

PP

Kontakizuna. «Gertatutakoaren egia historikoa ezartzea», Terrorismoaren Biktimen Oroi-menezko Zentroaren bidez.

Elkarrekin Podemos

Memoria historikoa. «Gerra Zibileko eta Frankismo biktimen erreparazioan eta aitortzean ekitate» bultzatzea.

Biktimak. «Biktima guztien aitortza sozial eta instituzionalerako prozesuan sakontzea».

«Biktima hezitzaileen proiektua» zabaldu eta indartzea.

Genero ikuspegia. 1960tik honako giza eskubide urraketa genero ikuspegi ikertzea.

rrituta etorkizunerako proiektatzeko balio behar dute».

Beste autokritika bat ere egon da kanpaina, torturen inguruan. EAJren Gipuzkoako zerrendaburu Joseba Egibarrena izan da: «Aitortzen dut, pertsona eta arduradun politikoa gisa, ez dudala behar bezala erantzun momentu horietan», esan zuen Donostian egindako jardunaldi batzuetan, Gara egunkariak jaso zuenez.

Zer egina bada. Omenaldi, biktima zerrenda, elkarriketa esparru eta legetako gabeziak osatzeko balioko ote du legealdiak?

Eusko Legebiltzarrerako
hauteskundeak
Kanpaina



IRITZIA

Jon Mirena Landa

EHUko Giza Eskubide eta Botere Publikoaren Katedraren zuzendaria



Bizikidetzaren ikuspegi orohartzailerak gorantz

Hauteskundeak ateko ditugu. Hortaz, bultzatzea egiteko uneko egokia da, hark aldi berean hurrengo legegintzaldira errepide-orri moduan balio dezakeelakoan. Bizikidetzaren edo berradiskidetzaren ari bagara, ugari dira, oso ugari, kontuan eduki beharreko alderdiak, baina, orain eta hemen, indarkeria politikoren inguruan lotutakoetarako batzuez besterik ez gara arituko.

Jakina da indarkeria politikoa gure herrian bai giza eskubideen urraketa larriak bai terrorismo delitu larriak ere utzi dituela. Urraketak eta delituok mota desberdinetako biktimak sortzearen bidez, mota desberdinetako egileak dituzte atzetan, eta gizarrentzako kalte anitz ere dakartzate. Eta horrek guztiak zatika, estrategia berezituak; eta zatika, komuna behar duen estrategia jakin bat ere eskatzen ditu, azken hori —estrategia komuna— hurrengo era batera laburbildu litekeena: giza eskubideen kultura eta estandarrek berrezarri behar dira, indar handiagoz, gure gizar-tean eta erakundeetan areago errotzekotan.

Horretarako, hiru dira jorratuko ditugun gako estruktural nagusiak: giza eskubideei ekiteko erakundetzaren (1), nazioarteko giza eskubideen estandarrekiko lotura (2) eta, azkenik, gai espezi-fiko bakar bat: giza eskubide eta bake-hezkuntzaren egoera (3).

1. Erakundetzaren. Giza eskubideak serio hartzekotan, bultzada instituzionala behar da. Euskadi mailan, Eusko Jaurlaritzari lider-go dago, eta horretan bake eta bizikidetzaren idazkaritza orokorra lehenengo aldiz sortu izana oso positibotzat jo behar da. Idazkaritza orokorrak, lehenadikaritzan izanik, ezin hobeto bete dezake bere erronka gaiotan: bultzatza-lana eta koordinazioa; lan eragingarria eta sinbolikoa batera zabalzea. Gainera, horren buru

persona independente bat jarri izana: alegia, alderdi jakin bateko kidea ez dena eta gaiotako *expertise* (jakintza berezitu) baduena ere gauza onak dira. Gainera, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua ere sortu da, iraganeko politikei ekiteko betiere giza eskubideen ikuspegi orohartzailerak galdu gabe.

2. Nazioarteko giza eskubideen estandarren moldea.

Nazioarteko zuzenbideak giza-eskubideen gobernu-plana eskatzen du, modu sistematikoan estandarrok sustatzeko. Eta halakoa aurkeztu zen, legegintzaldiaren hasieran. Hori berez ere berri ona da. Gogoratu beharra dago, esaterako, Espaniako Gobernuak behin bakarrik aurkeztu duela halakorik, Zapatero presidentearen garaian. Euskadin halako ohitura jator eta halabarrezkoa Ibarretxe lehen-dakariaren garaik aurrera martxan jarri zen. Baina plana ez da bakarrik «gure» indarkeria politikoa monografikoki oinarritu behar. Torturari, erailketak politikoen, zauritutakoek, mehatxuek, adierazpen-askatasunaren aurkako erasoek, eta abarrek, utzi duten drama, min eta arrastoei ez zaie komeni aurre egitea, zerbait bakana balitz bezala. Gure gizar-tean bestelako giza eskubideen urraketa ere bada, noski, eta horren filosofiak «zatiezintasuna» eta «unibertaltasuna» eskatzen ditu: alegia, dena batera landu behar dago nahiz eta gero, alor baikoitzean, neurri berezi eta arlotakoak ere hartu. Hurrengo legegintzaldi bati begira, horren hasieratik, Giza Eskubideen Plana beharko luke gure herriak: indar politikoa ez ezik, gainerako eskubide politikoa, zibil, sozial, ekonomiko eta kultur arlokoak ere barne hartzen dituen. Eusko Jaurlaritzak giza eskubide guztiak batera begi bistan eduki, sustatu eta hobetu beharko lituzke, agiri publiko bakar eta bateratuan.

3. Giza eskubide eta bake hezkuntza.

Aurreko lerrotan azaldukoaren garrantzia, alegia, giza eskubideen politika publikoa errotik orokortu beharra, bake hezkuntzarekin harremanetan agian argien justifikatu liteke. 2000ko hamarkadatik aurrera presio politikoa sortu zen, biktimak eskoletara eramateko: hain zuzen ere, batzuen aldetik terrorismoaren biktimizei buruz —ez «bestelakoei» buruz— esanbidez ari zirela. Horrek polarizazio politikoa hezkuntza alorrera eraman zuen, gaia neurri handi batean poztinduz. Horren aurreko erantzuna bake eta giza eskubideen hezkuntza plana egitea izan zen, Nazio Batuetako erakundeek, goi mailan, goraipatzeaz gain, jardueraren erudugarritzat ere modu ofizialean jo zutena. Plan honen apustua zera izan zen: giza eskubideen hezkuntzari helteko dena —ez bakarrik biktimak eta horien lekukotzak— landu behar zela. Dena: hau da, giza eskubideen bloke osoa, giza eskubideen kulturaz blai izan gaitzen. Indarkeria politikotik hastea eta, horren barruan, biktimen lekukotzak lehenestea, ez zen egokiena. Ez, behinik behin, polarizazio politikoa mantentzen zen bitartean. Lehenengo bake eta giza eskubideen planaren (2008-2011) filosofia horrek, ordea, ez zuen segidarik izan PSE Euskadiko alderdi sozialista lehendakariara heldu zenean. Ondorioz, bake hezkuntza maila sinbolikoa presente egon arren, errealitateak neurri handi batean desagertu egin zen. Azkeneko legegintzaldian, EAJ berriro ere gobernuan, bake hezkuntzari heldu zaien. Baina, nire iritzia apalean, biktimen programak lehenetsi dira ikuspegi orokorraren kaltetan. Egoera berriaren izanik, polarizazio politikoa indarra galtzen ari da, biktimen lekukotzen programak egungarriak dira eta fruituak ematen ari dira, dudu barik. Baina, hurrengo legegintzaldi bati begira, bake eta giza eskubideen hezkuntza plana indar handiagoz nazioarteko moldetara itzuli beharko litzateke, estrategia orohartzailerako, hezkuntza formalak, ez-formalak eta informala barne harturik.

Azken hausnarketa.

«Gure» giza eskubideen politika publiko-etatik giza eskubide guztien politiketara pasatu beharra dago modu argi eta esanbidezkoan. Hori, gainera, indarkeria politikokoari lehentasuna kendu ez, bizi-zik eta horri ekiteko estrategia zentzuzko eta eragingarria izango delako.



nuaren edozein jarduerak». Elkarrekin Podemosek, berriz, «bake positiboa» eta «bizikidetzaren inklusiboa» jarri ditu xede.

Hiru alderdi horien artean aldeak badauden arren, programak ikusita, PSE-EEren eta PPren posizioak dira ezberdinenak. PPren, batez ere. Arantz Quiroga idazkari nagusiaren dimisioak erakutsi zuen zailtasunak dituztela posizio horretatik ateratzeko, alderdiko zenbaitek, agian, hala nahi izan arren. Egoera hori ondo islatu zuen ETB2ko eztabaidan Elkarrekin Podemosko Pili Zaballaren —GALek torturatu eta hildako Joxi Zaballaren arreba da— eta Alfonso Alonso PPko lehendakariaren arteko isiluneak.

LEGEALDI BERRIAN, ZER?

Hor egon liteke legealdiko gakoetako bat: PPK leunduko ote duen jarrera, behintzat, alderdien elkarriketa gune batean parte hartzeko. Eta horrekin lotuta, izan liteke beste ardatz bat ere: «Autokritika». Gainerako alderdiek, bakoitzak bere eran, ETARI buruzko autokritika gehiago eskatu diote ezker abertzaleari —EH Bilduri ere bai zenbaitek—. Ikusteko dago, beraz, bi alderdi horiek zenbateraino izango diren traba bizikidetzaren arloan hasitako bidean aurrera jarraitzeko. EH Bilduk hala jaso du programan: «Memoriari buruzko neurriak, iraganari buruzko kontakizun edo irakurketa jakin bat inposatzeko baino, interpretazio kritikoa batean oina